Katastroaren eta Zerbitzuen Zuzendari Nagusiaren 1/2018 Ebazpena, abenduaren 27koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko ezaugarri berezietako "Bermeo – Mundakako Portua" ondasun-higiezinaren balio-txostena onesten duena.

Resolución 1/2018, de 27 de diciembre de la Directora General de Catastro y Servicios por la que se aprueba la ponencia de valores del bien inmueble de características especiales "Puerto de Bermeo - Mundaka" del Territorio Histórico de Bizkaia.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauan ezarritakoaren babesean, hasiera eman zitzaion ezaugarri berezietako ondasun-higiezinen katastro-balioak berraztertzeko prozedurari. Prozedura horretan zehar, ezaugarri berezietako "Bermeo – Mundakako Portua" ondasun-higiezinaren balioen txosten-proposamen bat egin zen, zein helarazi baitzitzaien ukitutako udalei, nahitaezko txostena eman zezaten.

Al amparo de lo dispuesto en la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, se procedió al inicio del procedimiento de revisión de los valores catastrales de los bienes inmuebles de características especiales. En el curso de este procedimiento, se elaboró una propuesta de ponencia de valores del bien inmueble de características especiales "Puerto de Bermeo - Mundaka", la cual fue entregada a los Ayuntamientos afectados para que emitieran el correspondiente informe preceptivo.

Oinarritzat harturik bai hasieran bidalitako balio-txostenaren proposamena, bai udalak/udalek egindako nahitaezko txostena (halakorik egin denean) eta Katastro eta Balorazio Zerbitzuak ondorioz egindakoa, burutu da ezaugarri berezietako "Bermeo – Mundakako Portua" ondasun-higiezinaren balio-txostena.

En base a la propuesta inicial de ponencia de valores remitida y, en su caso, al informe preceptivo emitido por el/los Ayuntamiento/s y el consiguiente informe del Servicio de Catastro y Valoración, se ha elaborado la ponencia de valores del bien inmueble de características especiales "Puerto de Bermeo - Mundaka".

Azaldutakoa dela bide, honako hau

En virtud de lo expuesto,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa: Onartzea ezaugarri berezietako "Bermeo – Mundakako Portua" ondasun-higiezinaren balio-txostena.

Primero: Aprobar la ponencia de valores del bien inmueble de características especiales "Puerto de Bermeo - Mundaka".

Bigarrena: Balio-txosten hori jendaurrean jartzea Bizkaiko Foru Ogasunaren bulegoetan (Basurtuko Kaputxinoen kalea 4, Bilbo) eta dagokion/dagokien udaletxean/udaletxeetan, hamabost egun naturaleko epean zehar, iragarki hau

Segundo: Someter dicha ponencia de valores a exposición pública en las oficinas de la Hacienda Foral de Bizkaia (Camino Capuchinos de Basurto, nº 4, Bilbao) y en el/los Ayuntamiento/s respectivo/s durante el plazo de quince días naturales contados a

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena: Agindua ematea dagokion/dagokien udaletxean/udaletxeetan jendaurreko erakusketari ekiteko, eta iragarkiak jartzeko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, www.bizkaia.eus web-orrian, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietan.

Laugarrena: Ebazpen honen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Katastroaren eta Zerbitzuen Zuzendari Nagusiaren aurrean, edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean, hilabeteko epean, jendaurreko informazio denbora amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtso biak ezin dira aldi berean jarri.

Bilbon, 2018ko abenduaren 27an

partir del siguiente a la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Tercero: Ordenar la publicación de la apertura de exposición pública en el/los Ayuntamiento/s respectivo/s y mediante anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia, en la página web www.bizkaia.eus y en los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico de Bizkaia.

Cuarto: Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de reposición ante la Directora General de Catastro y Servicios o reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a aquel en que finalice el período de exposición pública, sin que puedan simultanearse ambos recursos.

En Bilbao, a 27 de diciembre de 2018

Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusia

Directora General de Catastro y Servicios

Dña Maite Asensio de la Villa and.

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

TXOSTENA / PONENCIA

PUERTO DE BERMEO-MUNDAKA

EDUKIA / CONTENIDO

- BALIO TXOSTENA
- PONENCIA DE VALORES
- ERANSKINAK / ANEXOS

2018ko URRIA / OCTUBRE - 2018

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

EZAUGARRI BEREZIDUN ONDASUN HIGIEZINAREN BALIO TXOSTENA

BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA

GAI AURKIBIDE OROKORRA 3

1. AGIRIA.- MEMORIA, DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK 5

I. KAPITULUA.- MEMORIA 6
1.1.- EREMUA ETA ARAUBIDE ESPARRUA 6
1.2.- TXOSTENA IDAZTEKO JUSTIFIKAZIOA 7
1.3.- EZAUGARRI BEREZIDUN ONDASUN HIGIEZINA MUGATZEKO IRIZPIDEAK 7

II. KAPITULUA.- HIGIEZINAREN DESKRIBAPENA 8
2.1.- LURZORUA 8
2.2.- ERAIKUNTZAK 8
2.2.1.- OHIKO ERAIKUNTZAK 8
2.2.2.- ERAIKUNTZA BEREZIAK 8

III. KAPITULUA.- BALORAZIO IRIZPIDEAK 9
3.1.- KOORDINAZIOA 9
3.2.- BALORAZIOA 10
3.2.1.- LURZORUAREN BALORAZIOA 10
3.2.1.1.- ATALAK EDO SEKTOREAK 10
3.2.1.2.- BALORAZIO IRIZPIDE OROKORRAK 10
3.2.1.3. LURZORUAREN BALIOAK 10
3.2.1.4. LURZORUAREN KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEAK ETA HORIEN APLIKAZIO EREMUA 13
3.2.2.- OHIKO ERAIKUNTZEN BALORAZIOA 17
3.2.2.1.- DEFINIZIOAK 18
3.2.2.2.- BALORAZIOA 18
3.2.2.3.- ERAIKUNTZEN BALIOAREN KOEFIZIENTE TAULA 18
3.2.2.4.- ERAIKUNTZAREN KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEAK 20
3.2.3.- ERAIKUNTZA BEREZIEN BALORAZIOA 22
3.2.3.1.- BALORAZIOA 22
3.2.3.2.- ERAIKUNTZA BEREZIEN KOEFIZIENTE TAULA 22
3.2.3.3. ERAIKUNTZAKO KOSTU UNITARIOKO MODULUEN KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEA 23
3.2.4. LURZORUAREN ETA ERAIKUNTZEN BALIOAREN ADMINISTRAZIO EMAKIDA BIDEZKO KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEA 23
3.2.5. KATASTRO BALIOAREN ZEHAZTAPENA 23

Bilbon, 2018ko urria

GAI AURKIBIDE OROKORRA

Agiri honetan ezaugarri berezidun ondasun higiezinaren katastro balioak definitzeko beharrezko elementuak jaso dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko **2016ko maiatzaren 18ko 3/2016 FAren 9. artikuluarekin** bat eginez.

BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA

Hauxe da edukia:

1. Agiria.- MEMORIA, DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Agiri honetako I. kapituluan ezaugarri berezidun ondasun higiezinak baloratzeko eremua eta araubide esparrua definitu dira balio katastrala zehazteko prozeduraren barne. Hori guztia **3/2016 Foru Arauaren Lehenengo Xedapen Iragankorra** betez. Horrez gain, ezaugarri bereziko ondasunaren balioen txosten berria idazteko justifikazioa eta higiezinaren mugatze irizpideak jaso dira.

II. kapituluan txosten honek aztertzen duen ezaugarri berezidun ondasun higiezina deskribatzen da.

III. kapituluan Eraginen Oinarrizko Balioak **(VBS)** eta Eraikuntzaren Oinarrizko Balioa **(VBC)** jaso dira, araubidearekin bat eginez BICEren balorazioan aplikatu beharrekoak hain zuzen ere.

Era berean, lurzoruaren eta eraikuntzen katastro balorazio irizpideak zehaztu dira, bai ohikoak baita bereziak ere, eta aplikatu beharreko balio eta koefiziente zuzentzaileak zehaztu dira, baita balio katastralaren zehaztapena ere, **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuan** zehaztutakoarekin bat eginez**.** Horren bidez onetsi ziren ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro baloraziorako arau teknikoak.

1. AGIRIA

MEMORIA, DESKRIBAPENA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

I. kapitulua.- MEMORIA

1.1.- EREMUA ETA ARAUBIDE ESPARRUA

Ezaugarri bereziko ondasunaren balioen txosten honen lurralde eremua honakoan kokatzen da

BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA

Ondasun higiezin bakarra denez, **uztailaren 3ko 92/2018 Foru Dekretuaren 2**. artikuluarekin bat eginez, hauxe da bere katastro erreferentzia:

4P06802PBER

Ezaugarri bereziko ondasunaren balioen txosten honen lurralde eremua **Bermeo** eta **Mundaka** udalerrietan dago, eta horien hiriko eta landako ondasun higiezinen Balioen txostenak 2016ko ekainaren 13an onetsi ziren **25/2016 eta 80/2016** ebazpenetan. Horietatik kanpo geratu **Bermeo-Mundakako Portua BICEa**.

Balioen txosten hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko **maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 9. artikuluarekin** eta Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuan** jasotakoarekin bat eginez idatzi da.

Maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 27.1. artikuluarekin bat eginez, “balio txostenetan hauek agerrarazi behar dira: irizpideak, balio eremuak, balioztatzeko arau teknikoak, dagokion lurzoruaren mugapena eta ondasun higiezinen katastro balioak finkatzeko behar diren gainerako elementu guztiak”.

Era berean, ohiko eraikuntzen Hiri ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dituen **abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretua** aplikatu behar da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko **maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 23.2. artikuluan** zehazten da ondasun higiezinen katastro balioak ezin izango duela merkatuko balio frogagarria gainditu, eta horretarako, maila bereko ondasunentzat merkatu erreferentziazko **(RM)** koefiziente bat ezarriko da Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren Foru Agindu bidez.

Uztailaren 25eko 1328/2018 Foru Aginduaren bidez merkatu erreferentziako koefizientea **(RM) 0,5ean** finkatu zen ezaugarri berezidun ondasun higiezinentzat.

Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuaren 3. artikulua** betez, txosten honen oinarria Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat egindako Merkatu Azterketa da.

Balio txostenak sortzeari, onesteari eta aurkaratzeari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko **maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan** xedatutakoa beteko da.

1.2. TXOSTENA IDAZTEKO JUSTIFIKAZIOA

Aipatutako txostenen aplikazio eremutik kanpo geratu zen **BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA** izeneko Ezaugarri Berezidun Ondasun Higiezina **(BICE).**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko **maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 9. artikuluan** eta aurrekoa garatzen duen **uztailaren 3ko 92/2018 Foru Dekretuaren 5. bis artikuluan** xedatutakoarekin bat eginez, ezaugarri berezidun ondasun higiezina da **BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA**, erabilera espezializatuko multzo berezia eratzen duelako eta aipatutako artikuluko 1. atalean ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituelako.

Txosten hau **maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren lehenengo xedapen iragankorra** betez idatzi da. Bertan zehaztuta dago ezaugarri berezidun ondasun higiezinen txosten berriak Foru Araua indarrean jarri eta 2 urteko epean onetsiko direla.

1.3. EZAUGARRI BEREZIDUN ONDASUN HIGIEZINA MUGATZEKO IRIZPIDEAK

BERMEO-MUNDAKAKO PORTUKO eremuaren barne daude, katastro ondoreetarako, bere zirkulazio-ezaugarriak direla-eta bertan merkataritzari dagozkion portuko jarduerak burutzeko baldintza teknikoak, segurtasun-baldintzak eta administrazio kontroleko baldintzak biltzen dituztenak. Horrelakotzat hartzen ditugu amarratze, desamarratze, pilotaje, atoi, ontzi-aldaketa eta edozein motako merkantzien biltegiratze eragiketak. Horiek, bolumena eta aurkezpen modua dela eta, baliabide mekanikoak edo instalazio berezituak eta horien gainera dauden eraikinak behar dituzte.

Komertzial gisa sailkaturiko portu autonomikoek, era berean, ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren baldintza izango du. Hainbat erabilera portuko instalazio batean batzen badira, erabilera nagusitzat merkataritza-erabilera izango duten kudeaketa autonomikoko portuak ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat hartuko dira. Muga administratiboa badago, horretara egokituko da.

Merkataritza-portuaren esparruan sartuta daudela ulertzen da horren zerbitzura bideratutako lursailak, hots, zerbitzu eremuko lursail funtzionalak eta horien barruan kokatzen diren eraikinak. Aurrekoetatik kanpo egongo dira edonola ere garatu gabeko edo erreserbako lursailak, beraien helburuan erabili ahal izateko beharrezko baldintza fisikoak eta antolamendukoak betetzen ez dituzten heinean.

Mugapen horren zuzenketa edo doikuntza guztiek ez dituzte inolaz ere indarrean dauden eraginpeko hiri edo landa ondasun higiezinen balio txostenak aldatuko.

II. Kapitulua. HIGIEZINAREN DESKRIBAPENA

2.1. LURZORUA

BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA izeneko ezaugarri berezidun ondasun higiezinaren lurzorua mugatua da, ezaugarri bereziko ondasunaren balioen txosten honetako **I. kapituluko 1.3.** epigrafean zehaztutako irizpideekin bat eginez.

2.2. ERAIKUNTZAK

Katastro baloraziorako, ezaugarri berezidun ondasun higiezinaren eraikuntzak ohiko eraikuntzetan eta eraikuntza berezietan sailkatuta daude.

Balio txostena berrikusteko beharrezko baldintzak gertatzen ez baldin badira eta eraikinen eraikuntza, eraiste, eraberritze edo handitzeen aldaketak direla-eta higiezinen errealitatea egokitu behar denean, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak horiek egokituko ditu agiri honetan zehaztutakoarekin bat eginez, lehenengoa aldatu behar izan gabe.

2.2.1. Ohiko eraikuntzak

Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuaren 5. artikuluarekin** bat eginez, ohiko eraikuntza da hiri ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dituen **abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretuan** definitutako eraikuntza tipologiaren batekin identifikatu daitezkeen ezaugarriak dituena.

2.2.2. Eraikuntza bereziak

Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuaren 5. artikuluarekin** bat eginez, eraikuntza bereziak dira ezaugarri bereziko ondasunaren balioen txosten honetako **3.2.3.2**. puntuko taulan jasotako ezaugarriekin identifikatu daitezkeenak.

III. kapitulua. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

3.1. KOORDINAZIOA

Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuaren** 2**. artikuluarekin** bat eginez, **BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA** izeneko ezaugarri berezidun ondasun higiezinaren balio txostenaren azterketa ekonomikoa egiteko oinarritzat hartu da **2018ko abuztuaren 3ko 149 zenbakidun BAOn** argitaratutako Bizkaiko Lurralde Historiko osoan egin zen Merkatu Azterketa **uztailaren 25eko 1329/2018 Foru Aginduaren** bitartez. Bertan koordinatu ziren eremuko oinarrizko balioak jasotzeko metodoa, eraikuntzaren oinarrizko balioa eta balio horien bateratzea. Azterlan hori Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri guztietan gauzatu zen aldi berean. Horietako batzuetan higiezinen merkatuak ez duenez garrantzia handirik, eskualdeka banatu dira, lagin kopuruaren, kokapenaren eta higiezinen merkatuaren antzekotasunaren arabera.

Bereziki, **BERMEO-MUNDAKAKO PORTUA** izeneko **BICEan** kokatutako udalerriak **URDAIBAI** izeneko eskualdea osatzen duten **BERMEO** eta **MUNDAKA** udalerriak dira. Eskualde hori honako udalerriek osatzen dute, eta Lurzoru eta Eraikuntzako Oinarrizko Balioak jasotzeko datuak hauek dira:

KOD	UDALERRIA	LAGINAK					TASAZIOAK					
		V	C	G	I	O	V	C	G	I	O	T
017	BERMEO	42	22	12	4	0	164	16	44	3	0	115
021	BUSTURIA	6	0	0	0	0	20	0	9	0	0	10
031	ELANTXOBE	3	0	0	1	0	5	0	0	0	0	2
033	EREÑO	1	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0
041	GAUTEGIZ	2	0	0	0	0	2	0	0	0	0	0
046	GERNIKA	44	5	3	0	0	114	18	41	14	1	80
048	IBARRANGELU	1	0	1	0	0	16	0	2	0	0	6
062	MENDATA	1	0	0	0	0	4	0	0	0	0	0
067	MUXIKA	3	0	0	0	0	10	0	1	0	0	2
068	MUNDAKA	15	1	1	0	0	21	3	4	6	0	6
076	SUKARRIETA	2	0	0	0	0	5	0	0	0	0	0
079	ERRIGOITI	2	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0
906	FORUA	2	0	1	1	0	7	0	1	0	0	1
907	KORTEZUBI	1	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0
908	MURUETA	1	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0
909	NABARNIZ	0	0	0	0	0	4	0	0	0	0	0
911	AJANGIZ	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0
914	ARRATZU	0	0	1	1	0	4	0	1	0	0	0
	GUZTIRA	126	28	19	7	0	381	37	103	23	1	222

Aurrekoarekin bat eginez, Lurzoruaren Oinarrizko Balioak **(VBS)** hauek dira:

EGOITZAZKOA	MERKATARITZA	INDUSTRIA	BULEGOA	GARAJEA	TRASTELEKUA
723,86 €/m2	203,31 €/m2	284,38 €/m2	247,72 €/m2	9.534,06 €	687,60 €/m2

Eta Eraikuntzaren Oinarrizko Balioa **(VBC) 700,00 €/m2**-koa da.

3.2. BALORAZIOA

3.2.1. Lurzoruaren balioztapena

3.2.1.1. Atalak edo sektoreak

Bertan zehaztutako balioaren aplikazio eremua adierazten duen lurzoruaren balio unitarioko atal edo sektore bakarra mugatu da, eta agiri honetako **3.2.1.3**. epigrafearekin lotuta dago.

3.2.1.2. Balorazio irizpide orokorrak

Orokorrean lurzorua baloratzeko lurzoruaren metro karratu bakoitzeko balio unitarioa erabiliko da, euro/metroan banatuta eta lurzoruaren azalerari aplikatuta.

Hirugarren mailako erabilerentzako edo egoitzazko erabilerentzako nagusiki erabiltzen den lurzoruaren eremua baloratzeko benetan existitzen den eraikuntzari aplikatutako eragin balioa erabiliko da.

3.2.1.3. Lurzoruaren balioak

Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuaren 4.3. artikuluarekin** bat eginez, **BERMEO-MUNDAKAKO PORTUKO** lurzoruko balio unitarioa (Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako merkatu azterketarekin lortuta) kalkulatzeko erabilera industrialerako lortutakoa eraginagatik baloratu gabeko eraikuntzei dagokien eraikigarritasun materializatua eremu edo sektore bakoitzerako ezaugarri bereziko ondasunaren balioen txostenean zehaztutako koefizientearekin biderkatu beharko da. Ondorio horietarako, portuentzako ezarritako arau mugen arteko koefiziente hauek ezarri dira, **2,00** eta **50,00**, eta dagokion eremu edo sektorearen arabera ezaugarri berezidun ondasun higiezina baloratzeko ateratako lurzoruaren balio unitarioak ere ezarri dira.

KOEFIZIENTEA -91/2018 FDko 4.3 artikulua	BALIO UNITARIOA €/m2
3,35	238,17

Eraginagatik baloratu gabeko eraikuntzei dagokien eraikigarritasun materializatua eta lursail mota horretarako inolako eraikuntzarik ez dagoenez, hiri ondasun higiezinei esleitu beharreko gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoak onesten dituen **abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretuko 10.8 arauan** hiriko lursailetarako besterik ezean ezartzen dena aplikatuko da, hots, **0,25**.

Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuaren 4.4. artikuluarekin** bat eginez, **BERMEO-MUNDAKAKO PORTUKO** ohiko eraikinei aplikatu beharreko eragin balioa (aipatutako merkatu azterketatik abiatuz) erabilera ezaugarridunari dagokion Eraginen Oinarrizko Balioa **(VBS)** izango da; horretarako merkataritzakoa erabiliko baita.

Lurzoruaren Eraginen Oinarrizko Balioak **(VBS)** egoitzaren, industriaren eta merkataritzaren erabilerei buruzkoak, hain zuzen ere, lurzoruaren eremu ekonomiko homogeneoei atxikitakoak, erreferentzia bezala erabiliko dira gainerako erabilerei dagokienez lurzoruaren oinarrizko balioa kalkulatzeko. Ildo horri jarraiki, hurrengo taulak kontuan hartuta, dagozkien **CRU** eta **CRZ** koefizienteak aplikatuko zaizkie:

CRU koefizientea: Erabilera Arautzeko Koefizientea.

ERABILERA	MOTA	MODALITATEA	Erreferentziazko VBS	CRU koefizientea
V. EGOITZA	V.1 HIRI IZAERAKO ETXEBIZITZA KOLEKTIBOAK	V.1.1 ERAIKUNTZA IREKIAN	Etxebizitza	1,00
		V.1.2 ETXADI ITXIAN		
	V.2 HIRI IZAERAKO FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZAK	V.2.1 ERAIKUNTZA ISOLATUAN		
		V.2.2 ETXADIAN EDO ATXIKITA		
	V.3 LANDA IZAERAKO ETXEBIZITZAK	V.3.1 ETXEBIZITZA-ERABILERA ESKLUSIBOA		
		V.3.2 BINAKAKO ETXEBIZITZA EDO ATXIKIA		
	V.4 ETXEBIZITZAKO BESTE BATZUK	V.4.1 AURREFABRIKATUTAKO ETXEBIZITZAK, BUNGALOWAK	Etxebizitza	0,80
		V.4.2 GAINERAKO ETXEBIZITZAK		
D. KIROLA	D.1 ESTALIAK	D.1.1 BALIO ANITZEKO KIROLAK	Bulegoak/Merkataritza	0,70
		D.1.2 GAINERAKO KIROLAK		
		D.1.3 KIROL ERABILERAK BABESTEKO ZERBITZUAK		
	D.2 DESCUBIERTOS	D.2.1 HAINBAT KIROL	Etxebizitza	0,01
		D.2.2 IGERILEKUAK		
		D.2.3 KANPINAK		
		D.2.4 GOLF-ZELAIAK		
E. IKUSKIZUNAK ETA JOLASAK	E.1 ERAIKIN ESKLUSIBOAN	E.1.1 ESTADIOAK - ZEZEN PLAZAK	Bulegoa / Merkataritza	0,70
		E.1.2 BELODROMOAK - HIPODROMOAK - AUDITORIOAK		
		E.1.3 AISIALDI ETA JOLASETARAKO ZENTROAK	Merkataritza	0,90
		E.1.4 ZINEMAK - JAI ARETOAK - DISKOTEKAK		
		E.1.5 ANTZOKIAK		
	E.2 ERAIKIN EZ ESKLUSIBOAN	E.2.1 JAI ARETOAK - DISKOTEKAK - ZINEMAK - ANTZOKIAK		
		E.2.2 AISIALDI ETA JOLASETARAKO ZENTROAK		
T. TURISMOA - AISIA ETA OSTALARITZA	T.1 EGOITZAREKIN	T.1.1 HOTELAK - APARTAHOTELAK	Bulegoa	1,00
		T.1.2 GAINERAKO OSTATUAK		
	T.2 Egoitzarik gabe ERAIKIN ESKLUSIBOAN	T.2.1 JATETXEAK	Merkataritza	0.90
		T.2.2 TABERNAK - KAFETEGIAK – ELKARTE GASTRONOMIKOAK		
		T.2.3 KASINOAK - GIZARTE KLUBAK - BINGOAK		
		T.2.4 ERAKUSKETAK - BILTZARRAK	Bulegoa / Merkataritza	0.70
B. OSASUNA ETA ONGINTZA	B.1 SANITARIOAK OHEEKIN	B.1.1 ERIETXEAK - KLINIKAK	Bulegoa / Merkataritza	0,70
		B.1.2 OSPITALEAK		
	B.2 HAINBAT SANITARIO	B.2.1 ANBULATORIOAK - LABORATEGIAK		
		B.2.2 BAINUETXEAK		
	B.3 ONGINTZA ETA/EDO LAGUNTZA	B.3.1 EGOITZAREKIN		
		B.3.2 EGOITZARIK GABE		
K. KULTURAKOAK	K.1 EGOITZAREKIN	K.1.1 BARNETEGIAK – UNIBERTSITATEKO EGOITZAK	Bulegoa / Merkataritza	0,70
		K.1.2 IKASTETXE NAGUSIAK		
	K.2 EGOITZARIK GABE	K.2.1 IRAKASKUNTZA ETA ZERBITZUAK		
		K.2.2 LIBURUTEGIAK – MUSEOAK – ARTE ZENTROAK		
R. ERLIJIOKOAK	R.1 ERAIKIN ESKLUSIBOAN	R.1.1 KOMENTUAK - MINTEGIAK - PARROKIA EGOITZAK	Bulegoa / Merkataritza	0,70
		R.1.2 KULTU ZENTROAK		
	R.2 HAINBAT	R.2.1 BESTELAKOAK ERAIKIN EZ ESKLUSIBOAN		

ERABILERA	MOTA	MODALITATEA	Erreferentziazko VBS	CRU koefizientea
		R.2.2 HILERRIAK		
P. PUBLIKOAK - BITXIAK	P.1 HISTORIKOAK - ARTISTIKOAK	P.1.1 MONUMENTUAK	Bulegoa / Merkataritza	0,70
		P.1.2 BERTAKO TIPIKOAK EDO OHIKOAK		
	P.2 IZAERA OFIZIALEKOAK	P.2.1 ADMINISTRAZIOKOAK ETA ESANGURATSUAK		
		P.2.2 ZERBITZU PUBLIKOAK		
	P.3 IZAERA BEREZIKOAK	P.3.1 PRESONDEGIAK - MILITARRAK - POLIZIA ETXEAK		
I. INDUSTRIA	I.1 SOLAIRU BAT	I.1.1 BILTEGIAK	Industria.	1,00
		I.1.2 LANTEGIAK		
		I.1.3 TAILERRAK		
		I.1.4 ERAIKINA. GARAJEAK ETA APARKALEKUAK		
	I.2 HAINBAT SOLAIRU	I.2.1 BILTEGIAK		
		I.2.2 LANTEGIAK		
		I.2.3 TAILERRAK		
		I.2.4 APARKALEKUEN ETA GARAJEEN ERAIKINA		
	I.3 GARRAIO ZERBITZU PRIBATUAK	I.3.1 GARRAIO ETA ZERBITZU GUNEEN ERAIKINAK	Industria.	1,00
		I.3.3 NASA ESTALIAK - GELTOKIEN ERANSKINAK		
	I.4 ERAIKIN BEREZIAK	I.4.1 GAS BILTEGIAK	Industria.	0,50
		I.4.2 SOLIDO ETA LIKIDOEN SILOAK- BILTEGIAK		
	I.5 HAINBAT ERABILERA	I.5.1 HIRUGARREN SEKTOREA	Bulegoa	**0,90**
	I.6 ERANSKINAK	I.6.1 INDUSTRIA ERABILERAK BABESTEKO ZERBITZUAK	Industria.	1,00
C. MERKATARITZA	C.1 ERAIKIN ESKLUSIBOAN	C.1.1 SOLAIRU BATEAN	Merkataritza	0,90
		C.1.2 HAINBAT SOLAIRUTAN		
		C.1.3 MERKATUAK		
		C. 1.4 HIPERMERKATUAK ETA SUPERMERKATUAK		
	C.2 ERAIKIN EZ ESKLUSIBOAN	C.2.1 MERKATARITZAKO LOKALAK	Merkataritza	1,00
		C.2.2 MERKATARITZA GALERIAK	Merkataritza	0,80
		C.2.3 MERKATUAK - POSTUAK		
		C. 2.4 HIPERMERKATUAK ETA SUPERMERKATUAK		
Y. BESTE ERAB. BATZUK	Y.1 HIRI IZAERAKO ETXEBIZITZEN ERANSKINAK	Y.1.1 TRASTELEKUAK	Trastelekua	
		Y.1.2 GARAJEAK	Garajea	
		Y.1.3 BANATU GABEKO SOTOAK	Etxebizitza	0,40
		Y.1.4 LORATEGIAK - ESPAZIO LIBREAK	Etxebizitza	0,01
	Y.2 BIDEAK, BARNE URBANIZAZIOA ETA AZPIEGITURAK	Y.2.1 GUNE URBANIZATUAK - MARKESINAK	Etxebizitza	0,02
		Y.2.2 SARRERAK - BIDEAK		
		Y.2.3 ZERBITZUETAKO SAREAK ETA EKIPOAK	Industria.	0,70
	Y.3 LANDA IZAERAKO ETXEBIZITZEN ERANSKINAK	Y.3.1 BESTE ERABILERA BATZUETAKO ERAIKINA ETA/EDO LOKALA	Etxebizitza	0,40
	Y.4 EKIPAMENDU ETA HORNIDUREN ERANSKINAK	Y.4.1 GARAJEAK ETA TRASTELEKUAK SOLAIRUAN ETA/EDO LOKALA	Bulegoa / Merkataritza	0,50
		Y.4.2 BABES ZERBITZUAK		0,70
		Y.4.3 INSTALAZIOEN ERAKIN EDOTA LOKALA - BILTEGIAK		
O. BULEGOAK	O.1 ERAIKIN ESKLUSIBOAN	O.1.1 BULEGO ANITZAK	Bulegoa	1,00
		O.1.2 BANAKAKO BULEGOAK		
		O.1.3 BANKUAK ETA ASEGURUAK		

ERABILERA	MOTA	MODALITATEA	Erreferentziazko VBS	CRU koefizientea
	O.2 ERAIKIN EZ ESKLUSIBOAN	O.2.1 ETXEBIZITZADUN ERAIKINEAN		
		O.2.2 INDUSTRIADUN ERAIKINEAN		
		O.2.3 BANKUAK ETA ASEGURUAK		

CRU koefizientea-Orubeak: Erabilera Arautzeko Koefizientea

ERABILERA	MOTA/MODALITATEA	PLANGINTZAREN ERABILERA	Erreferentziazko VBS	CRU koefizientea
S. ORUBEAK	S.1.1 S.2.1 S.3.1	EGOITZAZKOA	Etxebizitza	0,90
		Merkataritza	Merkataritza	0,90
		INDUSTRIA	Industria	0,90
		HIRUGARREN SEKTOREKOA	Bulegoa	0,85
		SISTEMA OROKORRAK ETA EKIPAMENDUAK	Bulegoa / Merkataritza	0,65
		GARAJEA (ESKLUSIBOKI SESTRAREN AZPIAN)	Etxebizitza	0,40
	S.4.1	EGOITZAZKOA	Etxebizitza	0,85
		Merkataritza	Merkataritza	0,85
		INDUSTRIA	Industria	0,85
		HIRUGARREN SEKTOREKOA	Bulegoa	0,80

A eta B tauletan erreferentziazko bi **VBS** balio adierazten direnean, txikiena hartuko da kontuan.

3.2.1.4. Lurzoruaren koefiziente zuzentzaileak eta aplikazio eremua

1. Lurzoru eraikiaren balioaren koefiziente zuzentzaileak

- CCS1 koefizientea: Igogailua

Igogailurik ez duten eraikinetan kokaturik dauden hiri etxebizitza kolektiboei **(V.1)** aplikatuko zaie, honako taula honen arabera:

Solairu	Koefizientea
< 2	**1,000**
2	**0,950**
3	**0,900**
4	**0,800**
5	**0,750**
6	**0,700**

- CCS2 koefizientea: Barneko etxebizitza

Hiriko eraikin itxietako talde etxebizitzei aplikatuko zaie, hain zuzen ere argi bao guztiak lur-zatiko (ez etxadiko) patioetara begira edukitzeagatik barrukotzat jotzen direnei, taula honen arabera:

Solairu	Koefizientea
< 3	**0,800**
3	**0,825**
4	**0,850**
5	**0,875**
> 5	**0,900**

CCS3 koefizientea: Beheko etxebizitzak

Koefiziente hau etxebizitzaren erabilera bereziaren eta kokatuta dagoen solairuaren arabera aplikatzen da.

V.1 erabilera. Hiri etxebizitza kolektiboei aplikatuko zaie, honako taula honen arabera:

Solairu	Koefizientea
< BS	**0,840**
PB	**0,880**
1	**0,920**
>1	**1,000**

I.2 erabilera. Solairu batzuetako eraikinetan kokatuta dauden industria lokalei aplikatuko zaie, honako taula honi atxikiz.

Solairu	Koefizientea
< BS	**0,800**
PB	**1,200**
1	**1,000**
> 1	**0,800**

C, E, T, I.5, B, K, R, P, D, Y.4 erabilerak: Merkataritza, ikuskizun eta jolas, turismo, industria I.5 (hainbat erabilera), ongintza, osasun, kultura, erlijio, eraikin publiko berezi, kirol eta beste erabilera batzuetarako ondasun higiezinei aplikatuko zaie, ekipamendu eta horniduren eranskinak direnean (Y.4) Taula honetan azaltzen diren balioak izango ditu:

Solairua	Koefizientea
Sotoa	**0,500**
Erdisotoa	**0,800**
Beheko solairua	**1,000**
Solairuartea	**0,600**

Solairua	Koefizientea
Lehen solairua	0,700
Bigarren solairua	0,650
Hirugarrenetik	0,550
Bosgarrenetik gorako	0,500
Behegaina	0,600

Y.3 erabilera. Landa izaerako etxebizitza eranskinei aplikatuko zaie eta taula honetan azaltzen diren balioak izango ditu:

Solairua	Koefizientea
Sotoa	0,600
Erdisotoa	0,700
Beheko solairua	1,000
Lehen solairua	0,700
Lehenengo solairutik gora	0,500

- CCS4 koefizientea: Barruko lokalaren koefizientea

Ondokoei aplikatuko zaie: merkataritza erabilerako ondasun higiezinak (C), kaletik sarbiderik ez dutenak: Balio hauek izango ditu:

Tokikoa	Koefizientea
Sarbidea beste ondasun higiezin batetik	0,750
Sarbidea eraikineko atarian zehar	0,800
Sarbidea merkataritza galeriatik eta/edo merkatuetatik	0,900

- CCS5 koefizientea: Izkinako koefizientea

Kale batera baino gehiagotara ematen duten merkataritza erabilerarako ondasun higiezinei aplikatuko zaie. 1,100eko balioa izango du.

- CCS6 koefizientea: Lokalaren altueraren koefizientea

Koefiziente hau merkataritza erabilerako ondasun higiezinei (C) aplikatuko zaie altuera askearen arabera (altuera hau zorutik sabairainokoa da, forjatuen artean neurtuta, apaingarriak kontuan hartu gabe).

Altuera	Koefizientea
Gehienez 2,25 m	0,700
2,25 m eta 3,00 m artean	0,850
2,25 m eta 3,00 m artean	1,000
5,00 m baino gehiago	1,100

- CCS7 koefizientea: Sestrarekiko egoeraren koefizientea

Koefiziente hau merkataritza erabilerako ondasun higiezinei aplikatuko zaie kaleko sestraren eta lokalaren behealdearen artean dagoen distantziaren arabera (behealdearen altuera beheren dagoen tokian neurtuko da).

Altuera	Koefizientea
< - 1,00 m	0,850

Altuera	Koefizientea
- 1,00 m-tik 1,00 m-ra	**1,000**
> 1,00 m	**0,850**

Atal honetako bi koefiziente edo gehiago elkartzen direnean, koefizientea ez da inoiz **0,500**etik beherakoa izango, eraikin esklusiboetako merkataritzarako (**C.1**) izan ezin. Halakoetan, gutxienekoa **0,400** da.

2. **Orube eta lurzoru hutsen balioaren koefiziente zuzentzaileak**

Honako koefiziente zuzentzaile hauek aplikatu beharko dira:

a. Koefiziente baztertzaileak: Aurretiazko baldintzak betetzen dituztenen artean, honako koefizienteetatik baxuena aplikatuko da soilik.

- CCL1 - Barruko lur-zatia

Eraikuntza finkatuz inguraturik dauden eta bide publikoetatik sarbide zuzena ez duten orube eta lurzoru hutsei aplikatuko zaie (S.2.1).

Honako koefiziente hau aplikatuko da: **CCL1 = 0,500**

Orubearen edo lurzoru hutsen azalera osoari aplikatuko zaio.

- CCL2 – Sestrapeko aprobetxamendua

Sestrapeko eraikuntza aprobetxamendua baino ez duten orube eta lurzoru hutsei aplikatuko zaie **(S.1.1 eta S.2.1).**

Honako koefiziente hau aplikatuko da: **CCL2 = 0,500**

Aurretiazko baldintza betetzen duten azalera partzialetan aplikatuko da.

- CCL3 – Aprobetxamendu agortua

Eraikuntza aprobetxamendu agortua duten orube eta lurzoru hutsei aplikatuko zaie **(S.3.1).**

Honako koefiziente hau aplikatuko da: **CCL3 = 0,020**

Aurretiazko baldintza betetzen duten azalera partzialetan aplikatuko da.

Koefiziente ez baztertzaileak: Hurrengo koefiziente hauek aplikatuko dira:

- CCL5 – Azalera guztia

Azalera osoaren arabera aplikatuko zaie orube eta lurzoru hutsei **(S.1.1., S.2.1., S.3.1., S.4.1.).**

Hurrengo koefiziente hauek aplikatuko dira:

Azalera	Koefizientea
Gehienez 200 m²	**1,000**
200 m² eta 1.000 m² artean	**0,900**
1.000 m² eta 10.000 m² artean	**0,800**
10.000 m² eta 30.000 m² artean	**0,750**
30.000 m² eta 75.000 m² artean	**0,700**
75.000 m² baino gehiago	**0,650**

Orubearen edo lurzoru hutsen azalera osoari aplikatuko zaio.

- CCL6 – Bide publikoetarako aurrealdeak

Orube eta lurzoru hutsei aplikatuko zaie, bide publikoetarako aurrealdeen arabera aprobetxamendua agortu ez badute **(S.1.1).**

Hurrengo koefiziente hauek aplikatuko dira:

Bide publikoetarako aurrealde kopurua	Koefizientea
Bi aurrealde baino gehiago	**1,150**
Bi aurrealde	**1,100**
Bi aurrealde baino gutxiago	**1,000**

Orubearen edo lurzoru hutsen azalera osoari aplikatuko zaio.

- CCL7 – Aprobetxamendu pribatizagarria

Indarreko plangintzari jarraiki bete behar dituzten aprobetxamendu lagapenen arabera aplikatuko zaie lurzoru hutsei **(S.4.1).**

Honako koefiziente hau aplikatuko da: **CCL7 = aprobetxamendu pribatizagarriaren ehunekoa 0,85.**

Azalera partzialei aplikatuko zaie, beren ehunekoen arabera.

CCL10 – Garatu gabeko lurzorua

Garatzeko zain dauden lurzoru hutsei (bai hiri lurzoruari, bai lurzoru urbanizagarriari, garatu gabe badago) aplikatuko zaie, indarreko plangintzak atxiki dien aprobetxamendu edo eraikigarritasunaren arabera **(S.4.1.).**

Hurrengo koefiziente hauek aplikatuko dira:

Aprobetxamendua/Eraikigarritasuna	Egoitzazkoa	Industria/Tertziarioa/Merkataritza
+1,30 m²/m²	**0,65**	**0,75**
+0,80 m²/m² eta 1,30 m²/m² bitartean	**0,60**	**0,70**
+0,50 m²/m² eta 0,80 m²/m² bitartean	**0,55**	**0,65**
+0,30 m²/m² eta 0,50 m²/m² bitartean	**0,50**	**0,60**
0,30 m²/m² arte	**0,45**	**0,55**

3.2.2. Ohiko eraikuntzen balorazioa

Ezaugarri berezidun ondasun higiezinen katastro balorazioaren arau teknikoak onesten dituen **uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretuaren 6. artikuluaren** arabera, ohiko eraikuntzen eta eraikuntza berezien eraikuntza balio oinarrizkoa **VBC = 700 €/m2-koa** izango da.

3.2.2.1. Definizioak

Ezaugarri bereziko ondasunaren balioen txosten hau aplikatzeko ondorioetarako, ohiko eraikuntzaren eraikitako azalera iritziko zaio eraikuntza baten perimetroko parametroen kanpo lerroaren barruan eta, hala badagokio, mehelinen ardatzen barruan sartutako azalerari, argi patioen azalera kenduta

Halaber, balkoiak, terrazak, ataripeak eta gainerako elementu analogoak, estalita daudenean, beren azaleraren ehuneko % 50ean konputatuko dira, salbu eta beren lau orientazioetatik hirutan estalita daudenean, orduan % 100ean konputatuko baitira.

Ez dira eraikitako azaleratzat hartuko 1,50 metro altueratik beherako guneak.

3.2.2.2. Balorazioa

1. Ohiko eraikuntzak balioztatzeko birjarpen metodoa erabiliko da: oraingo kostua kalkulatuko da, erabilera, mota, modalitate eta kategoriagatik esleitzen diren koefizienteak hartuko dira kontuan, eta hala dagokionean, merkatura egokitzeko aurrez ikusi diren zuzenketarako antzinatasun eta kontserbazio egoeraren koefizienteen arabera baztertuko da. Egungo kostua kalkulatzeko batuketa hau egin behar da: egikaritze kostua, kontratako mozkinak barne, gehi lanbide ordainsariak eta eraikuntza kargatzen duten zergen zenbatekoa.

2. Eraikuntza kategoriak lortzeko **abenduaren 3ko 163/2013 FDaren 15., 16. eta 17. arauetan** xedatutakoa aplikatuko da. Aurrekoaren barne ez daudenei **3.** kategoria esleituko zaie.

3. Ohiko eraikuntzak sailkatzeko **3.2.2.3** ataleko taula oinarri hartuko da, erabilera, mota, modalitate eta kategoriaren arabera.

4. Eraikuntza mota bakoitzerako prezio unitarioa (eraikitako metro karratu bakoitzeko eurotan definitutakoa) ohiko eraikuntza oinarrizko balioari **(VBC)** aurretik aipatutako taulan dagokion koefizientea eta **3.2.2.4**. atalean adierazitako koefiziente zuzentzaileak biderkatuz kalkulatuko da.

5. Eraikin baten balioa kalkulatzeko eraikitako azalerari lortutako prezio unitarioa biderkatu beharko zaio.

3.2.2.3. Eraikuntzen balioaren koefiziente taula

ERABILERA, MOTA, MODALITATE ETA KATEGORIEN ESPARRU TAULA: CMCUC KOEFIZIENTEA

ERABILERA	MOTA	MODALITATEA	KATEGORIAK						
			1	2	3	4	5	6	7
V. EGOITZA	V.1 Hiri izaerako etxebizitza kolektiboak	V.1.1 Eraikuntza irekian	1,45	1,30	1,15	1,05	0,95	0,80	0,70
		V.1.2 Etxadi itxian	1,40	1,25	1,10	1,00	0,90	0,75	0,65
	V.2 Hiri izaerako familia bakarreko etxebizitzak	V.2.1 Eraikuntza isolatuan	1,80	1,50	1,25	1,05	0,95	0,75	0,65
		V.2.2 Etxadian edo atxikia	1,75	1,45	1,20	1,00	0,90	0,70	0,60
	V.3 Landa izaerako etxebizitzak	V.3.1 Etxebizitza erabilera esklusiboa	1,65	1,40	1,20	1,00	0,85	0,65	0,40
		V.3.2 Binakako etxebizitza edo atxikia	1,60	1,35	1,15	0,95	0,80	0,60	0,35
	V.4 Beste etxebizitza batzuk	V.4.1 Aurrefabrikatutako etxebizitzak, bungalowak	1,35	1,15	1,00	0,85	0,70	0,55	0,30
		V.4.2 Gainerako etxebizitzak	1,15	1,00	0,85	0,70	0,55	0,40	0,25
I. INDUSTRIALA	I.1 Solairu bat	I.1.1 Biltegiak	0,60	0,55	0,50	0,45	0,40	0,35	0,25
		I.1.2 Lantegiak	0,65	0,60	0,55	0,50	0,45	0,40	0,30
		I.1.3 Tailerrak	0,65	0,60	0,55	0,50	0,45	0,40	0,30
		I.1.4 Aparkalekuen eta garajeen eraikina	0,45	0,42	0,38	0,35	0,30	0,25	0,20
	I.2 Hainbat solairu	I.2.1 Biltegiak	0,40	0,37	0,33	0,30	0,27	0,24	0,20
		I.2.2 Lantegiak	0,45	0,42	0,38	0,35	0,32	0,29	0,25
		I.2.3 Tailerrak	0,45	0,42	0,38	0,35	0,32	0,29	0,25
		I.2.4 Aparkalekuen eta garajeen eraikina	0,50	0,48	0,45	0,40	0,35	0,30	0,25
	I.3 Garraio zerbitzu pribatuak	I.3.1 Garraio eta zerbitzu guneen eraikinak	1,40	1,25	1,10	0,90	0,70	0,50	0,35
		I.3.3 Nasa estaliak - geltokien eranskinak	0,45	0,42	0,38	0,35	0,30	0,25	0,20
	I.4 Eraikin bereziak	I.4.1 Gas biltegiak	0,55	0,50	0,45	0,40	0,35	0,30	0,25
		I.4.2 Solido eta likidoen siloak- biltegiak	0,35	0,30	0,25	0,20	0,18	0,15	0,12
	I.5 Hainbat erabilera	I.5.1 Hirugarren sektorea	1,40	1,25	1,10	0,90	0,70	0,50	0,35
